

EKOFIN. Bateratze fiskalari buruzko konpromisoazko akordioa bultzatu du Greziak, Suitzak berdin egin ezean hiru herrialdeek uko egin baitiote beren bankuetako diru kontuei buruzko informazioak trukatzeari. Etziko jakingo da emaitza.

Europako Batasunak ez du lortu banku-sekretua ezabatzea

Luxenburgok, Austriak eta Belgikak informazioa ukatzeko eskubideari eutsiko diote, baina atzeritarren kontuetako irabaziei zerga aplikatu beharko diete

Erredakzioa | DONOSTIA

Europako Batasunaren barruan paradisu fiskalak desagertzeko saioak ez du fruiturik eman. Azken uneko aldaketarik ezean, Ekofinek baimena emango die Luxenburgori, Belgikari eta Austriari beren bankuetan dirua duten herritarren sekretua gordetzeari. Trukean, hiru herrialde horiek %35 arteko zerga ezarri beharko diete atzeritarren kontuetako interesei.


Frits Bolkenstein Barne Merkatuko Europako komisarioa luze saiatu da Batasuneko 15 herrialdeen arteko bateratze fiskala lortzen, baina oztopo gaindiezinak topatu ditu orain arte. Hori dela eta, litekeena da etziko Ekofinen bileran Finantza ministroek baiezkota ematea Greziak bultzatutako konpromisoari.

Erresuma Batuak jarriko dizkio oztopo gehien akordioari, kontinenteko finantza zentro nagusia duenez —Londresko City—, ahalik eta gardentasun handiena interesatzen baitaio.

Batasun bat, bi sistema

EBren behin-behineko lehen-dakartzak bi sistema proposatu ditu. Batetik, 12 herrialdek bankuetako bezeroei buruzko informazioa eman beharko diete elkarri, bezero horiek ikertzen ari direnean. Luxenburgok, Austriak eta Belgikak, berriz, bi aukera izango dituzte: informazioa trukatzea ala banku-sekretuari eutsi eta atzeritarren kontuak zergapetzea. Zehazkiago, hiru herrialde horietan diru kontuak dituzten atzeritarrei interesen gaineko %15 eta %35 arteko zerga ezarriko zaie.

Tasa horrek ez du erabat eragotziko beren herrialdeetako Ogasunetatik ihesi dabiltzanek hiru herrialde horietan dirua ezkutatzea eta beste batzuek banku-sekretua baliatzea droga edo arma trafikaren bidez eskuratutako dirua zuritzeko.



ETIENNE ANSOTTE / EPA

Frits Bolkenstein Barne Merkatuko Europako komisarioak ez du bateratze fiskal osorik lortu.

Hala ere, irabaziak murriztuta, ez du hain erakargarria egingo, aberats handientzat salbu.

Greziak bultzatutako konpromisoa behin-behinekoa da. Izan ere, banku-sekretua kendu aurretik, Belgikak, Austriak eta, batez ere, Luxenburgok, exijitu dute Europa Mendebaldeko beste paradisu fiskalek ere berdin egiteko. Suitza, Liechtenstein, San Marino, Monako eta Andorrarekin negoziatzen ari

da Brusela, eskatutakoan informazioa trukatzeko.

Suitzarekin dute arazo gehien. Bernako gobernuak proposatu du EBko herritarrei %35ko atxikipena ezartzea eta iruzur fiskala dagoenean EBko Ogasunei laguntza ematea, baina proposamenari gutxitxo iritzi dio Luxenburgok.

Etziko bileran ere, Ekonomia eta Finantza ministroek baiezkota emango diote Alemaniari

gehegizko defizit-muga gainditzeagatik zabaldutako espedienteari.

Halaber, Europako Banku Zentralaren erabaki organoak egokitzeke eztabaida hasiko dute. Erreforma ezinbestekoa da, Europa erdialdeko eta ekialdeko herrialdeak sartzen direnerako. Herrialde bakoitzak ez du botorik izango, baizik eta bere neurriaren arabera ordezkaritza izango du.

NEKAZARITZA

Laguntza zuzenak %19 arte murriztu nahi ditu Bruselak

Agentziak | BRUSELA

Nekazariei ematen dizkien laguntza zuzenak %19 arte murrizteko erreformaren legea onartuko du datorren asteazkenean Europako Batzordeak.

Herrialde kideek Franz Fischlerren planari baiezkota ematen badiote, 2007. urtean %1 gutxituko dizkiete laguntzak nekazari ertainei eta handiei. Urtean 50.000 euro jasotzen dituzten laborari handiek %19ko murrizketa jasango dute, eta %12,5ekoa, berriz, 5.000 eta 50.000 euro artean eskuratzen dituztenek. 5.000 eurotik behera eskuratzen dituztenek —gehientsuenak Euskal Herrian— ez dute murrizketarik izango.

Hasiera batean, Fischlerrek 2004an ekin nahi zion erreformari, baina Nekazaritza Politika Bateratuaren diru gehien jasotzen duten herrialdeek —Frantzia eta Espainia batik bat— hiru urtez atzeratu zuten plana, 2006ra arteko finantzaketa lotuta zegoela argudiatuta.

«Merkatuak eskatzen duena ekoitzi»

Fischlerrek azaldu duenez, erreformaren helburu nagusia nekazarien errenta «egonkortzea» da, eta, bidenabar, produktibismo hutsa amaitzea. Izan ere, nekazariak «merkatuak eskatzen duena» ekoiztea nahi du Laborantza komisarioak, eta ez, ordea, EBren laguntza handiak ziurtatuko dizkiona.

Komisarioaren kalkuluen arabera, diru laguntzen murrizketak ez ditu gutxituko, halabeharrez, nekazarien errentak. «Behikiaren sektorean %3 jaitsiko diren arren, kalitate handiagoko produktzioa bultzatzeak %4ko errenta igoera ekarriko die laborariei».